



NEOLIBERALISMOAREN ARRAKALAK

KARL POLANYIREN MUNDUTIK



Lana eta lurra ez daude salgai

Karl Polanyiaren (1884-1964) izena indartsu ari da aurrera egiten. Ez diogu guk, Joan Martínez Alier ekologia politikoan adituak baizik. Hamarkada askoan kasik ahaztuta izan ondoren, aktualitate osokoak egiten zaizkigu orain bere ideiak. Berrargitaratu dira liburuak, antolatu dira konferentziak, eta estatuburu aurrerakoiek bere esaldiak erabiltzen dituzte diskurtsoa sendotzeko: “Merkatua zerbitzari bikaina da, baina nagusi oso txarra”, zioen Rafael Correa Ekuadorko presidentek Polanyi parafrasetatuz; eta horretaz zerbait badakite *Sumak Kawsay* lurraldean.

XX. mendeko antropologo inportanteenetakoa izan zen Polanyi, eta ikuspegi sozial hori ekonomiaren historiara eraman zuen. Bere ustez ekonomia jendarateak gidatu izan du iraganean, merkatu librean oinarritutako sistema XIX. mendeko exotismo moderno bat baino ez da. *Eraldaketa handia* liburuan idatzi zuen kapitalismoaren azken deriba horrek perturbazio handiak sortu zituela herritarrengan eta totalitarismoa ekarri zuela. 1944an idatzi zuen liburua, ordurako bizituak zituen 1929ko krisia, faxismoaren gorakada eta gerra.

Ez al gara antzeko egoera batera iristen ari? Neoliberalismoaren azken 40 urteetako doktrinak ingurumen eta ekonomia krisi orokorra ekarri dizkigu. Ez da harritzekoa ekologisten eta borroka sozialak dramatzatzen artean Polanyiaren ideiak kariño handiz hartzea. Esku artean duzun LARRUN honetan antropologoaren biografia eta pentsaera aztertuko ditugu, bere lanen testu hautatuak ere aurkituko dituzu, eta ikertu zituen antzinako zibilizazioen hartu-eman ekonomiko sozialen berri ere jakingo duzu. Era berean, Polanyiaren teoria gaur egungo borroka sozialen testuinguruan berrirakurtzen duen artikulu esanguratsu baten pasarteak dakarkizugu.

■ **Egilea: Urko Apaolaza Avila**

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIaren 2.501. zenbakiarekin banatua, 2016ko martxoaren 27an)



Karl Polanyi eta Iona Duczynska senar-emazteak. Ez da aski ikertu emakume iraultzaile anarkistak zer nolako eragina izan zuen antropologo hungariarraren pentsaeran.

Davosen 2012an Mundu Ekonomia Foroa egiten ari zirela, Karl Polanyiaren mamua hegan pasa omen zela zioen *The Guardian* egunkari ingelesak. *Eraldaketa Handia* leloa jarri zioten ekitaldiari. Egiaz, aspaldian urtero sumatzen da Polanyiaren itzala luxuzko eski estazioan barrena, kasik falta zaio esatea: “Abisatu nuen”. Hain dira gaur egunekoak bere ideiak. Agian oraindik ez dira nazioarteko agintari ekonomikoen agendan tokatzen, baina kapitalismoari alternatiba eraikitzen ari direnen artean oso presente daude.

Maiatzaren 19an eta 20an Karl Polanyiaren izena daraman nazioarteko bigarren mintegia egingo dute Parisen. EMES unibertsitate iker-tzaileen nazioarteko sareak eta Frantziako CNAM arte eta lanbideen kontserbatorio entzu-

tetsuak antolatu dute ekitaldia. Bertan landuko dituzte, besteak beste, ekonomia sozial eta solidarioa, *buen vivir* eta “komunaren” ikusmoldeak. Azken aldian indar handiz bultzaka datozen korronte ekonomiko-ideologiko horiek Polanyiaren lanaren aterkipean aztertzea, bada zerbaiten seinale.

Karl Paul Polanyi –sortzez Károli Pál Pollacsek– Vienan jaio zen 1886an. XIX. mende amaieran Austria-Hungariako Inperioaren hiriburua intelektualen Europako kabi nagusia zen; metropoli horretan liberalismoaren pisua oso handia zen, baina sozialismoaren bide-orriak ere diskutitzen ziren. Haurra zela egin zuen alde Danubio ertzeko hiritik, baina gaztaroan itzuli zen, eta beregan eragin itzela izan zuen.

Aita ingeniari eta enpresari hungariarra zuen, ama berriz, errusiar jatorriko pentsalaria. Ondo bizi zen familia judu burges batean hazi izan zen beraz. Lau urte baino ez zituenean Budapestera aldatu ziren eta hiri hartako unibertsitatean filosofia eta zuzenbide ikasketak egin zituen. Polanyik, oraindik lumatu berria zela hartu zuen kontzientzia politikoa. Unibertsitatean Galilei izeneko zirkulua sortu zuen; bertatik igaro ziren gerora pentsalari garrantzitsu izandako hainbat lagun. Urte asko igaro ondoren Polanyik penaz aitortu zuen ez zutela Galilei ekintza politikorako tresnatzat erabiltzen jakin.

ESKOLA AUSTRIAR AHALTSUARI ERRONKA

Lehen Mundu Gerran parte hartu eta zauritua izan ondoren, eta behin Hungariak independentzia lortuta, 1919an Vienara itzuli zen ekonomia-kazetaritza lanak egitera. 1920ko hamarkadako Vienan sozialismorako kalkulu ekonomikoa zegoen eztabaidaren zurrunbiloan. Sobietar iraultza gertatu berria zen, baina ekonomia errusiarra birrinduta zegoen gerra zibilaren ondorioz. Testuinguru horretan, ekonomia sozialista planifikatu baten bideragarritasunaz kritika oso zorrotza jaurti zuen eskola austriarreko Ludwig Von Mises-ek. Merkatu librearen teorian gehien sakondu zuen ekonomialariak zioen ezinezkoa zela sozialismoak merkatua antolatzea, Googlen, *smarth* gailuen eta metadatuaren garaiotan harrigarria dirudien gauza batengatik: horretarako beha-

rrezkoa zen egitura zentralizatuak ez lukeelako nahikoa informaziorik izango.

Polanyik erronka bota zion Misesi. Antropologoak arbuiatu egiten zituen hala merkatu ekonomian oinarritutako sistema, nola sozialismo zentralizatu, biek in sumatzen zuen “libertate” falta. Bere ustez ekonomia “ikuspegi orokor” batetik aztertu beharra zegoen: “Hitz egiten dugu ekonomiaz objektu natural bat balitz bezala, eskualde baten gainetik hegan egiten dugunean gure begiz osorik ikus dezakegun paisaia baten antzera. Baina ekonomia ez da objektu naturala, naturala bezain soziala da”. Eta erreflexio hori orainaldira ekarrita: Noiz hitz egingo dugu ekonomiaz irabazien eta lehiakortasunaren parametroetatik kanpo? Ez dirudi Confesbaskek “lan harremanen eredu berria” proposatzean hori duenik buruan.

Merkatu-ekonomia baino “ekonomia merkatuduna” aldeztu zuen Polanyik; kapitalismoan merkatuek berezko bizitza independentea zutela zirudien. Berak kooperazioa eta eskualdeetako hartu emanak zituen begipean, herritarren ardurara soziala erdigunean zuen sistemaren alde zegoen. Ekonomia sozialistaren teoria positibo bat eraikitzeko saiakera hori oso garrantzitsua izan zen bere pentsaeran ahalduntzeko.

ZEIN DA FAXISMOAREN ESENTZIA?

Gerraostean ezagutu zuen Ilona Duczynska, Hungariako kontrairaultzaileen *terrore zuritik* Vienara ihesi joan zen anarkista; urte gutxiren buruan ezkondu ziren. Komeni da emakume honen bizitza ezagutzeko geldialdi bat egitea. Duczynska Lehen Mundu Gerran hurbildu zen anarkosindikalismoa eta Zurichen ikasketak egiten ari zela gerraren kontra zeuden sozialistak ezagutu zituen, tartean Lenin bera. Vienara erbesteratu zenean, Moskuk aginduta Bigarren Internazional Komunista antolatzen aritu zen kazetari moduan –gero alderditik bota zuten

**Arte telebista katean
Polanyiren
eraldaketaren teoria
azaltzeko egindako
marrazkia.**



Testu hautatuak I

GURE MERKATU PENTSAMOLDE ZAHARKITUA

Berez elikatzen zen prozesu bat sorrarazi zen, eta haren ondorioz lehen batere kalterik egiten ez zuen merkatu egitura, izugarrikeria soziologiko bat bihurtzeraino zabaldu zen. (...) Gosea eta irabazia motibazio “ekonomiko” gisa definitu ziren, eta eguneroko bizitzan giza-jarduera sustatzen zutela suposatu zen, gainontzeko motibazioak etereoagoak eta izatearen oinarri materialarekin zerikusirik ez zutenak bailiran hartu

zirelarik. Ohorea edo harrotasuna, hiritarren eskubideak eta betebeharrak, norberekiko errespetua eta umiltasuna ekoizpenarentzat garrantzirik gabekotzat hartu ziren, eta, bereziki, motibazio “idealista” gisa hartuak izan ziren.

Hala, gizakiak bi osagai zituela pentsatu zen, bata goseari eta irabaziari lotua, eta bestea, ohoreari eta botereari. Bata “mate-

rial” zen, eta bestea “ideala”; bata “ekonomikoa”, eta bestea “ez-ekonomikoa”; bata “arrazionala”, eta bestea “irrazionala”. Utilitaristek, urrutirago joanez, bi termino multzoak bereizi zituzten, gizatasunaren parte “ekonomikoari” arrazionaltasunaren aura emanez. Horregatik, irabaziak sortzeko xedeaz soilik aritzen zela pentsatzeari uko egiten ziona ez zen soilik inmoraltzat hartzen, baita zorotzat ere.

[Karl Polanyi, *Commentary*, 1947. Euskarazko itzulpena: Iñaki Heras, *Gogoia*, 2002]

Rosa Luxemburgen ideiak defendatzen zituelakotan—. 1934an Vienako langileen iraultzan sartuta ibili zen; Bigarren Mundu Gerran Ingalaterran hegazkinak egiten jardun zuen —matematiketan jakintza handia zuen—; pilotu izateko eskaera ere egin zuen, baina ukatu egin zioten. Duczynskak harreman estua izan zuen hungariar poeta eta idazleekin, haien izkribu asko itzuli zituen ingelesera. Gerrilla-urbanoari buruzko lan bat ere idatzi zuen, 70eko hamarkadan Alemaniako RAF talde armatu ezkertiarren eskuliburu izango zena.

Ez da gehiegi ikertu Ilona Duczynskak zer nolako eragina izan zuen Karl Polanyiaren jarreretan. Bistan da baina, emakume iraultzailea ekintza politikoekin eta mugimendu sozialekin oso lotuta egon zela, eta horrek Polanyiaren alde erradikalena indartu zuela. “Badakit bizitza birrintzea zer den, bere distira etengabea izan eta halako batean erortzea. Egin duzun gauza bakoitza laguntza handia izan da niretzat”, leitu daiteke Montrealgo Concordia Unibertsitatean gordetzen dituzten Polanyiaren gutunetako batean. Gertatzen dena da, kasik ikusezina dela Duczynskaren irudia,

1936ko Espainiako anarkosindikalistak ziren moduan, edota gaur egun Donbass eta Kurdistanen diren bezala. Toki horietako gatazketan armak eskuan ala negarrez ikusten ditugu emakume estereotipatuak, baina dikotomia horretatik aparte makina bat lagun daude isilean zapalkuntzari paparretik heldu nahian. Horietako bat zen Duczynska.

Austrian egoera gero eta zailago bihurtu zen faxismoaren gorakadarekin. Polanyik *Volkswirt* egunkariarentzat egiten zuen lan eta arretaz jarraitu zituen nazioarteko albisteak. Faxismoak Mendebaldeko kristautasunaren balore demokratikoak birrindu zituela jabetu zen: “Sistema faxistak trenguarik gabe jarraitu behar du mugimendu faxistak emandako zereginak: deuseztatzea alderdiak, erakunde demokratikoak eta gizartea. Faxismoa, giza kontzientziaren izaera bera aldatzen saiatu behar da”, idatzi zuen. 1933an, jadanik Engelbert Dollfuss kantzilerrak Austrian demokrazia deseginik zuela, lankide eta lagunek aholkatuta hanka altxa zuen Ingalaterrara. Viena ez zen toki segurua judutar jatorriko ezkertiar batentzat.

Testu hautatuak II EKONOMIA ETA DEMOKRAZIA

Leize bat ireki da ekonomia eta politikaren artean. Hori da, hitz gordinez, garai honetako diagnostikoa. Ekonomia eta politika, gizartearen bizitzeko bi era horiek, autonomo bihurtu dira, eta elkarren artean gerran ari dira etengabe; kontsigna bihurtu dira, alderdi politikoei eta klase ekonomikoek interes gatazkak dituzte haien izenean. Hainbestearino, non ezkerra eta eskuina aurrez aurre dauden demokraziaren eta ekonomiaren izenean, gizartearen oinarriko funtzio horiek ordezkatu ahal izango balira bezala bi alderdi ezberdinen gan! Esloganek beti ezkututzen dute errealtate krudela. Ezkerra demokrazian sustraitzen da, eta eskuina ekonomian. Hain justu, horrelaxe, ekonomia eta politikaren arteko harreman disfuncionala hondamendia dakarren polaritate batean hedatzen da. Demokrazia politikaren eremutik datoz ekonomiarik eragiten dioten indarrak, eta perturbatu egiten dute, kateatu. Ekonomiak erantzuten du demokraziaren kontrako asalto orokorrek, ematen baitu anti-ekonomizismo arduragabe eta irrealak haragizatzen duela.

[Karl Polanyi, *Der Österreiche Volkswirt*, 1932]

SPEENHAMLAND: OINARRIZKO ERRENTA UNIBERTSALAZ EZTABAIDA

Ingalaterran helduei klaseak ematen jardun zen hainbat hiritan. Lan horren bidez auzo langile ingelesak miseria bekoki aurrean ikusi zuen Polanyik, eta errealtate horren ezagutzatik edan zuen *Eraldaketa Handia* bere liburu sonatuena idazteko. Besteak beste, XVIII. mende amaieran Speenhamland hirian abian jarritako behartsuentzako laguntza sistemari erreparatu zion. Ingalaterrako hegoaldeko zenbait konderritan nekazal guneetako goseteari aurre egiteko karitatezko laguntzak eman ziren garai horretan, aurretik existitzen ziren “pobreentzako legetan” inspiratuta. Eztabaida

handia izan zen, langile ororentzako gutxieneko diru-sarrera ezartzea baitzen beste aukera, baina askoren ustez horrek lanerako estimulua kentzen zuen eta ekonomia apaldu.

Speenhamland sistema hainbat urteren ondoren bertan behera geratu zen. Polanyirentzat industrializazio gizagabeari emandako erantzuna izan zen, baina arazo nagusietako bat zen gutxieneko diru-sarreraren muga oso behetik ezarri zela. Aldi berean, enpresariak soldadak ahalik eta gehien jaitzen zituzten, bazekitelako zergadunen poltsikotik ateratako diru-laguntzekin konpentsatuko zirela; eta lan-merkatua eratze bidean zegoenez, ez zegoen sindikaturik prekarizazioari hortzak erakusteko.

Gaur egun Speenhamland askoren ahotan dabil Oinarriko Errenta Unibertsalaz (OEU) hitz egitean, eta badirudi duela bi mendeko eztabaidak berriz ere bizkortu direla –Euskal Herrian, jaiotzeagatik soldataren eskariak indar handia izan du beti, Gipuzkoan OEU ezartzeko simulazioa ere egin zuen Aldundiak–. Baina Ingalaterrako adibide historikora baino, gehiago jotzen da Brasilen edo Alaskan indarrean dauden esperientzietara, paternalismotik emantzipaziora jauzi egitea alegia. Nolanahi ere, Polanyiren ideia nagusia berekin doa: kapitalismoaren amildegiaren gaintik “bizitzeko eskubidea” dago. Kapitala edo bizitza.

MERKATU LIBREA, FIKZIO MODERNO HORI

1941ean beka bati esker Amerikako Estatu Batuetara joan zen. Aurretik ere maiz izan zen kapitalismoaren lurralde handiengan, eta bertatik bertara eza-gutu ahal izan zuen 1929ko hondoratzeari aurre egiteko Roosevelt presidenteak abian jarritako *New Deal* politika. Estatuaren interbentzionismo hori merkatu librearen logikaren erabat kontrakoa zen eta Polanyiren ideiak baieztatu baina ez zituen egin.

Urte horietan higitu zituen buru-fuinak 1944an *Eraldaketa Handia* argitaratzeko, orain



1929ko krisiak hankaz gora jarri zuen liberalismoak ordura arte amestutako arkitektura ekonomikoa, “amerikar bidea” barne. Polanyi bertatik bertara ezagutu zuen 30eko hamarkadako AEBetako *New Deal* politika.

berriz ere bazterrak nahasten ari den merkatuari buruzko bere tesi nagusia. Polanyi azterketa antropologiko batetik abiatzen da eta ondorioztatzen du ekonomia, merkatuek ez ezik, jendar-tean dauden beste hainbat indar sozialek ere mugitzen dutela, hala nola pertsonen arteko harremanek, ohiturek, erlijioak eta ideologiak, betebeharrak, errespetuak, beldurrak eta elkartasunak... Historian zehar, ekonomia jendartearen “instituzioei” lotutako zerbait izan da pentsalari hungariarrentzat, eta merkatuak periferian egon dira, sistema horren osagarri.

XIX. mendean Ingalaterran industrializazio prozesua azkartu zenean, eredu kapitalista nagusi zen globoaren toki gehienetan. Merkatuak instituzioen eta gizartearen araupean egotetik euren kasa funtzionatzen hasi ziren, etekin eko-

nomiko hutsa helburu. Polanyi *embedded* deitu zion fenomeno horri, merkatuak erlazio sozialengandik “deslotzea” alegia. Utopia baten momentu fundazionala izan zen: auto-erregulatu daitekeen merkatu librearena, egungo neoliberal gotorrenek oraindik hain kuttun duten *laissez faire* edo “utzi egiten” doktrinarena. Pertsonen jokabide erreala motibazio ekonomikoek baino ez dute determinatuko, gainerako motibazioak hutsaren hurrengo dira, ameskeria ez materialak. Gainera, pentsaera hori naturalizatu egin zen, gizakiaren izatean bertan balego bezala. *La pela es la pela* esango lukete katalanek, eta *txin-txin diruaren* hotsa euskaldunek.

Kapitalismoak lana eta lurra merkantilizatu zituen, salmentan jarri. Polanyiarentzat hori “fikzioa” zen, biak ahala biak ez baitira sekula produzi-

“

Hungariarrantzat ‘lana’ idatzita dagoen tokian ‘pertsona’ behar luke, eta ‘lurra’ dagoen horretan ‘natura’ edo ingurumena. Bata zein bestea era agresiboan desjabetu zitzaizkien herritarrei, eta orain ere hala da: Ingalaterran XIX. mendean *enclosure*arekin zelaiak hesitu zituzten moduan botatzen dituzte gaur Amazoniako indigenak euren bizitokitik, edo hiltzen dituzte Berta Cáceres moduko lider ekologistak”

tzeko edo salgai jartzeko sortu. Nolanahi ere, merkatu bat sortu zen eta prezioa ezarri zitzaion: soldata eta errenta. Patriarkatu horren barruan, soldatapekoa ez zen lan erreproduktibo eta zaintza orok balioa galdu zuen, gaur egun badakigun arren ekonomiaren izebergaren zati handiena direla.

Jakina, hungariarrantzat “lana” idatzita dagoen tokian “pertsona” behar luke, eta “lurra” dagoen horretan “natura” edo ingurumena. Bata zein bestea era agresiboan desjabetu zitzaizkien herritarrei, eta orain ere hala da: Ingalaterran XIX. mendean *enclosure*arekin zelaiak hesitu zituzten moduan botatzen dituzte gaur Amazoniako indigenak euren bizitokitik baliabide naturalak erauzteko, edo hiltzen dituzte Berta Cáceres moduko lider ekologistak.

Merkatu librearen legeak ikaragarritzko tentsioak eta asaldurak sortu zituen jendartean, ekonomiaren deslotze horrek erreakzioa eragin zuen. Mugimendu batzuk esperantzagarriak izan ziren Polanyirentzat, sozialismo demokratikoa kasu; bestetarik ordea munduaren hondoratzea ekarri zuten, 30eko hamarkadako atzeraldi totalitarioak egin bezala: “Kataklistimoaren jatorria, Bigarren Mundu Gerran bere zenita izan zuena, liberalis-



Polanyiren (goian) ideiek bat egiten zuten egungo mugimendu dekrezionistaren arbaso izan zen Marcel Mauss etnologoaren “eman, hartu eta itzuli” printzipioarekin.

moaren proiektu utopikoan zegoen –idatzi zuen antropologoak bere maisulanean–. (...) 1930etik aurrera merkatu ekonomia krisian sartu zen, krisi orokortua izan zen gainera. Urte gutxian faxismoa munduko potentzia bilakatu zen”.

AMESGAIZTO POLANYIARRA BIZITZEN ARI AL GARA?

Polanyiren eta, batez ere, Duczynskaren curriculum ezkertiarra zela-eta, senar-emazteek ezin izan zuten inoiz AEBetan bizitzeko bisaturik lortu, Polanyik Columbiako Unibertsitatean irakasle lanpostua zuen arren. McCarthyismoaren garaiak ziren, sorgin ehizarenak. Kanadan jarri ziren, Toronto ondoan, eta jubilatuta arte joan-etorrian ibili behar izan zuten hungariarrak.

Columbiako Unibertsitatean ikerketa talde bat sortu zuen hainbat kolaboratzailearekin, eta seguruenik ekarpen akademiko garrantzitsuena egin

zuen: merkatu ekonomiatik kanpoko sistemak erabiltzen zituzten antzinako zibilizazioak aztertzea (ikusi 10. eta 11. orrialdeak). Askoren ustez, Polanyiaren tesiek badute balio erantsi bat: ekin-tzara bultzatzen duten eredu “*alternatiboak*” eskaini zituela. *Merkataritza eta merkatuak antzinako inperioetan* (1957) liburuan merkatu periferikoetan, birbanaketan eta elkarren arteko faboretan oinarritutako iraganeko herriak aztertu zituen. Marcel Mauss etnologoaren oinordeko den mugimendu dekrezionistak, Polanyi irekitako bide horretan sakondu du esanez jatorrian obligazioa zegoela “eman, hartu eta itzultzeko”, eta ideia hori ez dela gizarte arkaikoetara mugatu behar, gaur egungoek ere onartu beharko luketela.

Polanyi 1964an hil zen Kanadan, keynesianismoak Europan goia jo zuenean. Estatuak, kapitalismoak sortzen zituen desorekak estaltzen zituen ekonomian interbenituz, baina eredu kapitalista zalantzan jarri gabe. Merkatu librearen utopiak porrot egin eta gerraren ondoren, inoiz pentsatu al zuen hungariarrak berriz errepika zitekeela halakorik? 70eko hamarkadan Margaret Thatcher eta Ronald Reaganen politika neoliberalak berriz ere heldu zioten “utzi egiten” banderari, esperimendu monetarista eta pribatizatzaileak abian jarritz nazio-arteko erakunde eta funtsen bidez. 1987tik bi hamarkadaz AEBetako Erreserba Federaleko buru izan zen Alan Greenspanek –kontrolrik gabeko finantza eta desarautzearen erantzule– oso garbi azaldu zuen merkatuek “euren burua korrejitu” behar zutela. Kredituan oinarrituriko ekonomiaren hasiera izan zen, 40 urteko beste “fikzio” bat, Polanyiaren hitza erabiliz.

Eta orain TTIP eta antzeko ezkutuko tratatuak sinatzen dituzte estatuek, Bruselako lobbyen eta Troikaren presiopean, merkatu librearen ilusioa azken muturrera eramanez. Baina ez gaitezen engaina, Josep Fontana historialariak azaldu bezala, ekonomia estatuen kontrolpetik enpresari pribatuen kontrolpera baino ez da igaro. Eta hemen dira antropologoak iragarritako lehen erreakzioak: Europako atea errefuxiatuei ixtea, xenofobia,

Testu hautatuak III XIX. MENDEKO ZIBILIZAZIOAREN AKABERA

Garai honen hasieran, XIX. mendeko ereduak goienean zeuden, haien eragina inoiz ez zen hain handia izan. Azkenean, gure gizarte mota munduko lidergora eraman zuen sistema horretatik ez zen ezer geratu.

Nazio mugen esparruan, demokrazia ordezkataileak askatasunen erregimena zaindu zuen, eta nazio zibilizatuen ongizatea sekula ez bezala hazi zen kapitalismo liberalaren abaroan; botereen orekari esker ez zen izan gerra luze eta basatirik, beste garai batzuekin alderatuta, eta urre-patroia euskarri sendoa bihurtu zen ia eskala globalean funtzionatzen zuen kooperazio ekonomikoan oinarritutako sistemarentzako. Mundua perfektua izatetik urrun zegoen arren, bazirudien perfekziora bidean zihoala. Eta bat batean, eraikin paregabea amildu egin zen: gure gizartearen existentzia posible egiten zuten baldintzak betirako hil ziren. Uste dugu gaurko zereginak ezin direla ulertu, ez bada nazionala eta internazionala den gertaera izugarri honen argitan, eta instituzio guztiak daude nahasirik. Historialariak ez daki nondik hasi ere.

[Karl Polanyi, Columbiako Unibertsitatean emandako konferentzia, 1941]

eskuin-mutuarren gorakada, herrialde arabiarretako gerrak... Eta badirudi amesgaizto polanyiar bat bizitzen ari garela beste behin.

Txanponak baditu ertz gehiago ordea. Jendea antolatzen hasi da beste eredu baten bila eta ikus ditzakegu zor bidegabea kitatzeko auditoriak, “B” planak, alternatiba sozial eraldatzaileak, ekonomiari ikuskera feminista ematen dioten betaurrekoak... Lana eta lurrarekiko beste harreman bat, jendarte konplexu batean. ■

Eta Mesopotamia ez balitz kapitalismoaren sehaska?

Antzinaroko zibilizazioak presenteko finantza unibertsoaren ernamuina izan zirelauste izan da; merkatariek eta *agora*-k gizakiaren senetik sortu ziren tokiak. Karl Polanyik hori guztia ezereztatu zuen bere ikerketekin: elkarrekikotasunean eta birbanaketan oinarritutako mundu bat topatu zuen. Berea ez zen iragan ideal batera itzultzeko *primitibismoa*, azterketa enpirikoarekin kapitalismoak ekarritako hondamendia gainditzeko gakoak aurkitu nahi izan zituen. *Los límites del mercado* (Capitán Swing, 2014) bilduma liburua iturri hartuta, antropologoak idatzitako hainbat artikuluren laburpen librea aurkituko duzue segidan.

1901ean Tigris ondoko Susa hirian –gaur egungo Iran hego-ekialdean– informazio oso baliotsua zuen basaltozko zutarri bat deskubritu zuten arkeologo frantsesek: duela 81 amona Mesopotamian indarrean zeuden legeak zekartzan landuta. Hammurabiren Kodeak –garai haietan Babiloniako erregea zenetik dator kio izena– ordura arte aurkitutako buztinezko taulatxoetan idatzitakoa berrirakurtzeko aukera eman zuen. Babilonian gure munduaren sehaska aurkitu omen zen, negozioena.

Begien aurrean mentalitate kapitalista zuen merkataritzaren egiazko jatorria azaldu zen: erregea, jainkoa eta etekinak maila berean gurtzen zituen zibilizazio bat. Eskariaren eta eskaintzaren legean zimendatzen ziren ohitura monetarioak, prezioak, transakzioak, edota zorren eta mozkinen kontabilitatea. Oasi batean jasotako harrizko London city bat. Gertatzen dena da, egitura hori guztia goitik behera erortzen dela merkaturik ez badago. Eta horixe zen Polanyik zihoena, Babilonian ez zela existitu merkaturik, gaur egun uler-tzen dugu moduan behinik behin.

Herodotok orain 2.500 urte Babilonia bisitatu zuenean jabetu zen pertsiarrek ez zirela merkatuetara joaten. Ondoren egin diren ikerketa eta indusketa arkeologiko ugari erakutsi dute Babilonian eta Ekialde Hurbilean ez zela merkatu gisa erabiltzeko espazio librerik egon, eta idazkera kuneiformetik ustez “merkatu” bezala itzultitako hitzek egiatan ez zutela halakorik esan nahi.

ARRISKURIK GABEKO ASIRIARREN NEGOZIOA

Egungo Turkiako lurretan zegoen Kanish hiri desagertuan, asiriarrek merkataritza-gune bat sortu zuten hiria kobrez hornitzeko. Bertan jarduten ziren karum estamentuko negozio gizonak. Salerosketan lortzen zituzten irabaziak, dirua maileguan uzten zuten edo inbertitu egiten zuten, eta enpresa modernoetan bezala, partizipazioak zeuden eta etekinak banatzen ziren. Kanishetik oihalak eta beste produktu batzuk esportatzen ziren, nagusienak kuota baten pean, eta prezioek eta interes tipoe-k burtsa-indizeen moduan fluktuatzen zuten.



Hammurabi kodearekin, Babilonian aurkitu zuten asiriologoek oraingo finantza merkatuaren jatorria. Polanyik eta bere kolaboratzaileek egindako lanei esker, ordea, teoria hori ezerezean geratu zen: Mesopotamian eta Ekialde Hurbil osoan ez zegoen merkaturik gaur egun ulertzen dugun moduan.

Horrek guztiak bat egiten du merkatu sistemearekin. Kasu hori ikertu duten adituek, ordea, bazekiten zerbaitek huts egiten zuela: antzinako taulatxo idatzietan etekinak oso gutxitan aipatzen ziren eta galerak inoiz ez. Era berean, prezioengan ere arreta gutxi jartzen zen eta merkatariek ez zuten traturako fidantzarik utzi behar.

Berez, *karum* delakoak ez ziren salmentatik negozioa egiten zuten merkatariak, funtzionari moduko batzuk basizik. Diferentzia nabarmena da: merkataritza librean ez bezala, merkataritza “hitzartuan” ez dago arriskurik, ez prezioen beharadaren aurrean, ezta zorrak ordaintzeko zailtasunak daudenean ere. Transakzioek ez zuten izatera pribaturik, botere publikoen xedapen hutsak ziren, eta prezioak ez zituzten merkatuek ezartzen; hortaz, irabaziak ez zetozen horien goraberetatik baizik eta produktuen erabileratik. Merkaturik eta espekulaziorik gabeko merkataritza hori zirrargarria zen jarduera gisa, baina arriskutik libre zegoen negozio bat baino ez zen.

“MERKATARITZA ISILA” PORTU KOMERTZIALETAN

Portu komertzialak garai eta geografia guztietan egon izan dira. Rotterdam edo Bilboko portuetan ikusten ditugunean metalezko edukiontzia bat bestearen ondoan, lehian errotutako trafiko librea dela pentsa genezake. Baina aro modernoon aurretik, atzerriarekin merkataritzan aritzeko segurtasun bermeak behar ziren. Portu komertzialak instrumentu neutrala ziren, herri bateko zein besteko, mehatxurik gabe jardun ahal izateko tokiak. Normalean horma baxuak zituzten, itsasotari, erriotari edo lautadari irekiak, eta salneurrien norgehiagoka baino, administrazioaren arauak gainjartzen ziren.



Azken ikerketek dioten moduan inperio mesopotamiarrean merkaturik ez bazegoen, galdera agerikoa da: nola, non eta noiz sortu ziren merkatuak? Irabazi eta galerak prezioen kapritxoan pean jartzen dituen sistema lehiakor hori? Agian, merkatuaren historia milurteko bat atzeratu liteke eta mendebalderantz hainbat gradu egin, Babiloniatik Greziaraino”

Sarritan, portu komertzial horietan “merkataritza isila” praktikatzen zen. Kartagotarrek K.a V. mendean Afrikako ipar kostaren konkista hasi zutenean, bertako tribuekin truke mutua egiten zuten. Zuhurtziaz, batzuk zein besteak hondartzatik gertu zegoen toki berera joan ohi ziren. Bertan uzten zituzten ondasunak nahiz urrea, eta operazioa hainbat aldiz errepikatzen zuten denak konforme egon arte. Gero nor bere bidea hartzen zuen bestearekin inolako kontaktu fisiko eta harremanik izan gabe. Opari trukaketa itxura hartzen zuen sistema horrek ez zuen perturbaziorik sortzen bertako herriengan, ez baitzen hartu-eman komertzial gisa kontsideratzen.

Euskal baleazaleak eta Ternua inguruko amerindiarrak ez ziren mutu geratu elkar ikustean, haien arteko harremanetik sortu zen *pidgin* hizkuntza frankoa. Badakigu XVI. mendean euskaldunek eta bertako herriek merkataritza sarea sortu zutela Ipar Amerikan –gure burdinoletatik ateratako aizkorak ere aurkitu dira itsasotik ehunka kilometrotara–, baina zer punturaino ez ote zen arestian aipaturiko trukaketa sistema bat? Bestela, nola uler liteke euskaldun haiek innuekin izandako laguntasuna, Europar kolonizatzaileek

Amerikako herri guztiak masakratu zituzten bitartean?

Konkista aurreko Mesoamerika portu komertzialez josita zegoen. Yucatánen dagoen Términos lakuan, adibidez, maiek eta aztekek hartu-eman komertzial sendoa zuten, eta lege tazitu edo isileko batek zioen toki hura ezin zuela inork mendean hartu. Bertan, biltegiak eta merkantziak manipulatzeko esparruak zeuden; hura merkaturik gabeko portua zen, bidaiari luze bat egin aurretik antolatutako bilgune anitza. Espainiar konkistatzaileek halako portu guztiak suntsitu zituzten eta desagertu egin ziren.

Baliteke antzinako Babilonia bera gisa horretako erriberako portu komertzial bat izatea, azken ikerketek dioten moduan merkaturik ez baitzegoen inperio mesopotamiarraren hiriburuan. Orduan, galdera agerikoa da: nola, non eta noiz sortu ziren merkatuak? Irabazi eta galerak prezioen kapritxoan pean jartzen dituen sistema lehiakor hori? Agian, merkatuaren historia milurteko bat atzeratu liteke eta mendebalderantz hainbat gradu egin, Babiloniatik Greziaraino.

GREZIAKO AGORA: DEMOKRAZIAK ARAUTUTAKO AZOKA

Yorgos Avgeropoulos zinemagileak Greziako azken urteetako hondoratzea modu gordinen kontatzen duen dokumental arrakastatsua produzitu zuen 2015 hasieran, Al Jazeera arabiar katearen laguntzarekin: *Agora. Demokraziatik merkatura*. Filmak erakusten du herrialde heleniarrean krisiak zer eragin izan duen herritarren eta instituzio demokratikoengan: “Pelikulan eszena surrealista bat dago, Parlamentu barruko parodia bat –dio egileak *Liberation* egunkari frantsesari erantzunez–. Lege bat onartzen dute Asanblada ia erabat hutsik dagoenean, eta hizlaria parlamentarien fantasmak konbentzitzen saiatzen ari da”. Demokrazia greziar telebista publikoa kolore beltzak hartu zuenean itzali zen Avgeropoulosen ustez.



Agora. Demokraziatik merkatura dokumentalaren fotograma. Greziarrek azken urteetan jasandako hondoratzea kontatzen du filmak, eta antzinako agora demokratikoa gaurko deudokraziarekin kontrajartzen, Polanyik egin bezala.

Mendebaldea deitzen diogun gure zibilizazio-ra demokrazia ekarri zuen lurraldean, *agora* asanbladentzako herritarren plaza publiko bat zen. Grezia modernoaren oroimenean, aldiz, salerosketarako merkatuarekin nahastu izan da. Anakronismo hori oso nabarmena da Atenas klasiakoaren kasuan: debekaturik zegoen produktuak multzo handitan salerostea, lurrarekin egindako negozioak publikoki iragartzen zituzten eta tratuak esku-dirutan ixtea zen arau komuna. *Agoran* esfera politikoko erabakiak ziren nagusi, eta aldaketa sozialetan eragin itzela izan zuen bere sorrerak: nekazariak ordaintzen ez bazuen, jadanik ez zen hartzekodunek atzerrian salduko zuten beldur, gaur egun Alemaniako bankuek greziar enpresa publikoekin egiten duten moduan.

Oroimenetik borratu zaigu *agoraren* funtzio sozial eta politikoa, historiografiak gibel eman diolarik Aristotelesek ekonomiari buruz zuen ikuspegiari. Kurioso da filosofo klasiko handia nola goraiatu izan den metafisikaren edo estetikaren arloetan, baina zein kasu gutxi egin zaion merkatuaz esan zuenari. Beretzat, dirua irabazteko desira ez zen naturala, gizakia berez zen buruaskia, animaliak bezala. Ekonomialari modernoek aurreiritzi ez-zientifikotzat zuten ideia hori, baina ez ziren jabetu jainuak aurre hartu ziela gertaerei: bera bizi izan zen K.a IV. mendeko Grezian merkatu salerosketaren sistema oraindik hastapenetan zegoen, eta hala ere, ia 2.500 urte geroago Atenasko Sintagma plazan biltzen diren herritarrak bezain erradikal agertu zen zorraren interesen kontra. ■

Emantzipazioaren hanka

Nancy Fraser (Baltimore, 1947) AEBetako feminista intelektualak *A triple Movement?* (Mugimendu hirukoitza?) artikulua argitaratu zuen 2013an *New Left Review* aldizkari ingeles erreferentzian. Bertako tesiak bide luzea egin dute jadanik. Fraserrek Karl Polanyiren lanari ekarpena egiten dio, hungariarrak sortutako merkatua/jendartea mundu bi-polarrak hirugarren hanka bat behar duela egungo borroka sozialak ulertzeko: emantzipazioa. Hemen duzue testuaren muina euskarara ekarrita.

Alde askotatik gaur egungo krisiak 1930eko hamarkadakoaren antz handia dauka, Karl Polanyiren *Eraldaketa Handia*-tik ezagutzen dugunez. Orain, lehen bezala, mundu osoko merkatuak zabaldu eta desarautzeko bultzada ikaragarria milaka milioi lagunen bizimodua txikitzen ari da. (...)

Antzekotasunak ikusita, ez da harritzekoa egungo krisiaren analista asko Polanyiren maisulanera itzultzea. Baina oraingo abagunea 30eko hamarkadaren oso bestelakoa da funtsezko alderdi bati dagokionez: antzekotasunak egonagatik ere, gaurko erantzuna nabarmen ezberdina da. XX. mende hasieran krisia inguratu zuten borroka sozialek “mugimendu bikoitza” sortu zuten, Polanyiren esanetan. Alde batetik zeuden merkaturen desarautzearen eta merkantilizazioa zabaltearen alde egin zuten alderdi politiko eta interes komertzialak; bestetik, parean zegoen klase sozialen nahasketa zabal bat –nekazal guneetako eta hirietako langileak, lur jabeak, sozialistak, kontserbadoreak...–, “jendartea babestea” bilatzen zuena merkatuaren txikizioaren aurrean. Krisiak aurrera egin ahala “babes sozialaren” ideiak irabazi zuen. Gerraostean klase politikoez gutxienez bat egiten zuten gauza baten: lana, ingurumena eta diruari zegokionean merkatuaren “auto-erregulazioa” bertan behera utzi behar zen, bestela gizartea deuseztatuko zen.

Aitzitik, gaur ez dago halako kontsentsurik. Elite politikoak esplizituki edo inplizituki neoliberalak dira, Txina eta Latinoamerikatik kanpo gutxienez. Beste ezer baino lehen, inbertitzaileak babesten dituzte ia denek –euren burua sozialdemokratizat dutenek barne– eta austeritatea eta “defizita murriztea” eskatzen dute, politika horiek ekonomiarentzat, ingurumenarentzat eta jendartearentzat arriskutsuak badira ere. Eta bitartean, herritarren oposizioa ez da irtenbide solidario baten inguruan batu, Occupy edo *indignados* bezalako protesta bizi baina laburrak egon diren arren. Azken batean, ez daukagu Polanyik aipatzen zuen mugimendu bikoitzik.

Zer egin dezakegu horren aurrean? (...) Has gaitzen galdetzen: zergatik ez dago mugimendu bikoitzik XXI. mendean? Zergatik ez dago gizartea eta natura babestera bideratutako hegemoniaren kontrako proiekturik? (...) Arazoa da falta den horretan jartzen dugula begirada, bertan dagoenari ez ikusiarena eginez. (...) 1960ko hamarkadan eta hurrengo urteetan lehertu ziren mugimendu emantzipatzaileen zabalkunde harri-garriaz ari naiz: arrazismoaren kontrako borroka, inperialismoaren eta gerraren kontrakoa, ezker berria, feminismoaren bigarren olatua, LGBTren liberazioa [Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen mugimendua], multikulturalismoa, eta abar. (...) Mugimendu hauek oso kritiko izan



XX. mendeko mugimendu emantzipatzaileen artean feminismoa izan da indartsuenetakoa bat. Irudian, 1970ean New York-en egindako manifestazioan "emakumeen emantzipazioak baturik" dio afixak.

ziren gerraosteko estatuen ongizatean integraturiko babes sozial moldeekin. Hierarkia injustuak eta gizarte bazterketa eragiten zituzten kode kulturalak begi txarrez ikusten zituzten.

Adibidez, ezker berriak babes sozialak burokratikoki banatzean herritarrak bezero bihurtzen zirela zioten. Gerraren kontrako ekintzaile anti-imperialistek lehen munduko babes sozialaren marko nazionala kritikatu zuten, bazterturik geratu ziren herri post-kolonialen bizkar osatzen baitzen. Feministek nabarmendu zuten "familiarren soldatan" oinarritutako babes sozialaren izaera zapaltzailea, eta "lana" eta "zergaren" izaera androzentrikoa, erakutsiz babesturikoa ez zela berez "gizartea", baizik eta gizonen dominazioa.

Prozesu horretan, biluztu egin zuten "babesa" esanguraren inozentzia. Horregatik mugimenduok, jakina, mesfidantzaz hartzen zuten babesaren idealizazioa eta merkatuen demonizazioa. Euren lehentasuna ez zen inondik ere "gizartea" defendatzea, dominazioa gainditzea baizik. Hala ere, mugimendu emantzipatzaileak ez ziren liberalismo ekonomikoaren aldekoak. Gizartearekiko haustura eragin nahiak ez zituen "ekonomiaren" aldeko bihurtzen.

Hortaz, orokorrean, gerraosteko mugimendu sozialak ez dira egokitzen mugimendu bikoitzaren

alde batean zein bestean. Ez merkantilizazioaren defentsa, ezta babes sozialarena ere, haiek hirugarren proiektu politiko bat besarkatu zuten, eta nik emantzipazioa deitzen diot. Polanyiaren lanean agertzen ez den arren, proiektu honek posizio zentrala okupatu behar du XXI. mendeko borroka sozialen gramatika argitzeko orduan. Proposatzen dut konstelazio hori aztertzea irudi diferente baten bidez: mugimendu hirukoitza.

Mugimendu bikoitza ez bezala, hiru aldeko gatazkan lerrotatzen da irudi berri hori: merkantilizazioaren defendatzaileak, babes sozialarekin bat egiten dutenak eta emantzipazioaren aldekoak. Mugimendu hirukoitzak agerian uzten du proiektu bat bestearekin aliatu daitekeela, hirugarren proiektuaren kontra. (...) Hiru aldeak anbibalenteak dira sortzez. Ikus dezakegu, esaterako, Polanyi dioenaren kontrara, babes sozialak maiz izan dituela bi aurpegi, merkatuek komunitateengan duten eragin deuseztatzaileari aurre egiten dio alde batetik, baina bestetik euren arteko menderatzea sendotzen du. (...) Emantzipazioa ere ez dago anbibalentziatik salbu, askatasuna sortzeaz gain, elkartasun sareetan tentsioak sorrarazten baititu. Emantzipazioak babes sozialak duen etika solidarioaren oinarria desegin dezake eta merkantilizazioari bidea ireki. (...)

Emantzipazioarekin konprometituri gaudenok erabaki genezake neoliberalismoarekin dugun erlazio arriskutsu hori behingoz haustea eta babes sozialaren printzipioekin aliantza berria egin. Mugimendu hirukoitzaren aldeak berriz lerrotatu ditzakegu, eta dominazioaren kontrako gure epe luzeko borrokan integratu ditzakegu igoaleko balioa duten solidaritatea eta babes soziala. (...) Justizia soziala ulertzeko modu zabalagoa besarkatuz, halako proiektu batek ohore egingo lieke Polanyiaren ideiei, eta dituen hutsunak bete. ■

BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZA: BI BORROKEN
ARTEKO HURBILKETA XUMEA BLA BLA BLA LA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
ALDAKETA NAFARROAN BLA BLA BLA BAL
BLA-BLA BLA BLA BL-BL-BL-BLAAA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA **KLIMA ALDAKETA** A
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
GARAI KONPLIKATUAK EUROPAKO EZKERRENTZAT
BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
LOMCE, HEZKUNTZA HANKAZ GORA BLA BLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA LA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA

HAUTATZEN DAKITENENTZAT

9,95€

Eskura ezazu!

943 371545

www.arga.eus/denda - denda@arga.eus

ARGIAren asteroko harpidedunak
doan jasoko du postaz

